



**Efoma.—Batikano'tik.**

Bidezkuendeen artean Aita Santuak onexek artu ditu: Alemania ipar-aldetik 80; Spezia'tik 23 abadegai; 200 bidezti ingalanda. Aita Santuak gustiei eskua mun-egiteko emon ondoren, itzaldi bat egin eutsen pozandi bat batez be ingalantik bidezkunde asko elizen diralako. Egun oneitarako Ingalanda, Milan eta India'tik elduko dira.

**Inditar. Bakaldungai bat Aita Santua ikertzen.**

Sir Rama Varma, Travancore'ko bakaldungayak Aita Santua ikertu dau, Ingalanda'ko Ordelari Clive yauna lagun dabela. Ordu erdiko autu'aldia egin ondoren Pacelli kardenala ikeriu dau.

**Emakume bat oñez eta ortozik Efoma'ra.**

Maria Giovana Bonaglia 35 urtedun emakumea, Andra Maria'ren bitartekotasunez gaxo astun batetik osatuta, egin daben eskintza betetako, Bergamo'tik Efoma'ra oñez eta ortozik yoan da. Bergamo'tik garilaren 7'n urten eta bero andiak gora bera, 1.146 kilometroan ibili da. Egunoro Mesa entzun eta yaunartu dau. Eleiz-buruak toki gusietan arerarik onena egin dautse, bidezti adoretu oni, eta Aita Santua ikertu ondoren, bañiro, yoan zan lez, oñez eta ortozik bere efira biurtzeko asmoa dauko. Olango kistar asko ba'legoz...

**Urte Deuna luzetuko ete?**

Urte Deuna gustiok dakigun ez, 1933'ko Yofala 1'n idigi zan, 1934'ko egun atan amaitzeko. Baña beste Urte Deun batzuetan Aita Santuak zerbait luzetzeko oitura daben ezkeru, uste da oingoan be egingo dabela. Itxaroten zan baño bidezkunde geyago dabil eta ementxe EKIN'en emon dogu geyenen bafi, eta ikusi be bai beroak gora-bera, bidezkundeak aufera doazala. Baña batez be datofen ilaren lenengo egunetan asko itxaroten dabez eta ointxegandik yatetxe-gela gustiak eskatuta, ta bardin Lotazila'n Bernardatxo Subiru'ren Deun iragartzeko yayetarako Ondiño Urte Deunean Zoriondun eta Deun iragaritzeko yayetan ainbat egiteko asmoa dago. Eta Garizuma aldia oretarako ain egoki ez datoelako, ba'dirudi, Pentekostes inguruetarite luzetuko dabela. Izan be, aldi ori da egokiena bidezkundeetarako ta ainbestek yoateko gogoa agertu daben ezkeru, luzepen ori ondo etofiko dala uste dogu.

**Treveris'ko Soñeko Deuna ikusi ta gurtzen.**

Egunerik egunera, talde andi-agoak elizen dira Soñeko Deuna gurtzen. Agirian ipiñi eta lenengo astein, 240.000 lagun eldu dira. Gustiz miloitik gora. Atzerliar bideztien arteko lenengo bi-

dezkundeetan Beljika'ko bakal-anderea (efegiña) yoan zan. Gotzaniak toki urñetatik, abadegyak euren irakasleakaz eta kistar pilo andiak alde gustietatik elizen dira. Ba'dau ondiño ziñestea bazteretan.

**Eukaristi Batzafak, Lituania ta Puerto Rico'n.**

Oraintsu Panevesys'ko Goterkian Eukaristi-Batzar bat egin zan, eta oin bañiro Syéksna'n Telsiai'ko Goterkian beste eder bat ospatu dabe. Yaupa abestu bat gaz baratz bat baten asi zan, eta aratsalde 20.000 lagun bildu ziran, argiak biztuta ibildeun eder bat gaz amaitu zana. Urango egunetan umeentzat eta gasteentzat eleizkizunak izan ziran, yaunartze ugariakaz. Batzaretan itzaldi sakonak egin ondoren azkenengo eguna eldu zanean, Lituania'ko alde gustietatik, kistar lau ta abade ugariak eldu, goiz aldetik autortzak entzun eta yaunartzak emoteko. Amaiketan Kaunas'ko Gongotzaniak, zelai eder baten Yaupa abestua izan eban. Laureun abeslarik abestu eban, bertan Gotzain ta Agintariak zirala. Aratsaldean iru kilometro luze bidezkunde bat egin zan, gizostie ugari ta arigafiro eralduta. Bertan ziran Lateri-agintari, gudaroste bazkun, ordelari ta milaka kistarak. Gure Yaunagaz onespina emon ondoren, Telsiai'ko Gotzaniak itzalsamur bat egin eban gustiei eskefak emoteko.

Puerto Rico'n, Poce'ko urian, bertako Gotzain ipar-amerikarak eralduta Eukaristi-Batzar bat datoñen Urila'rako gertatzen diardue. Orain Gotzaniak eun abadegaz egin daben batzar baten egitaraua egin dabe. Goterki ori da Ipar-Amerika'ko ikuñipean dagon Goterkirik zařena.

**Irurogei ta amar, urtedun katoliko egin eta abade egiteko gertatzen.**

John Staunton, Illinois'ko Katoliko Ikastetxeko irakaslea, len protestante ta 20 urtean Pilipiñetan irakasle izana, datoñen Ira-la'n Efoma'ra yoango da, katoliko abadegintzarako gertatzeko. Len protestante «artzain» izan zan, eta 1930'n katoliko bi-urtu zan. 1931'n emaztea il yakon eta urte atan artu eban erabagia abade egiteko. Bere anai eta irakasle Endika be, lerelerti irakaslea dana, len protestante abade izan eta katoliko egiña da.

**Sendiaren Deuntasun alde.**

Alemania'ko agintari hitlertarak, lege bat emon dabe, yatorizko gexoak ondorengoai erantzi leikioenak elkortuteko nai ta ez agintzen, gauzak ondo aztertu ondoren. L'Osservatore Romano'k lege galgari onetzaz idatzi dau. Au giza-lege ta sentzunen aurka dala azaldu ondoren, Casti Connubii'nolango gaiztakerien aurka azaldu zituan zioak

agertu ondoren, katolikotarak bear dan gañantzia lege oneri emon dautsela diño, kistar legeak oñen aurka dagozala azalduaz. Sendiaren eskubideak lateriarenak baño lenago dira, eta sendi deuntasunaren aurka ezin leike, bidez beintzat, Lateriak ezer egin. Olango basatikeriak agintzeko bizi ete gara XX'n gizaldian?...

**Indotar katolikoak olango asmo gaiztoen aurka.**

Karachi'ko udalak egin dautsen eskari bat aintzat artuta, batzar bat egitea erabagi eban, sendiaren kaltezko osatetxe bat irasteko erabagia artzeko asmoz. Ori yakin ebeneko Karachi'ko katolikotarak gogoz eta kementsu asmo galgari oñen aurka yaiki dira. Agintari ta osatutegi euren asarea agertzen eutsen bitartean. «Catholic Truth Society» bazkunak, ori kistar legeen aurka dagola azaltzen eban idaztiño baten 5.000 iyeki zabaldu zituezan, indu ta musulmanen artean, eta baita idaztitegi ta izparingiak saltzen diran tokietan. Bertako izparingi batek idazlan mordo bat argitaldu ditu, asmo oñen aurka. Ori ikusi dabenean udalak, beste biderik ez dau izan asmo ori bertan bera lagatzea baño. Orixe da bidea Katolikoak alkartu ta zintso yokatu olango lege galgarien aurka. Emen lege galgarien aurka katolikoak agiñak erakusten ikasi ba'gendu, ez ziran aufera yoangol Ez orixel! Eta nortzuk eta indotarak ikasbide ederak emoten! Ez ete gara lotsatu bear?...

**Seipel agurgariaren gomutaz Kristo Bakaldunari Eleiza bai.**

Viena'n lengo ilaren 20'n Seipel lñaki agurgariaren gomutaz iragiko daben Eleiza'ren lenengo aña onetsi dabe. Aita Santua'ren Ordelaria ta Innitzer kardenala ta agintari «ministroak» bertan izan ziran. Yaupa ondoren. Innitzer agurgariak itzaldi eder bat egin eban, Seipel abade yaun, yakintsu ta lateri arasoetan guren izan zanaren aintzaz. Urango Dollfuss «kanziler» ak eta guda-arasoetako «ministro» Vaugoin yaunak itzaldi aintzagarriak egin zituezan «Austria'ren gaizkatzaile» deitzen eutsoenen gorlabenez. Gorlabenok ondo irabaziak dira izan be... M'tar G.

**Euskal-erriko izparrak**

**Elantxobe.**

*Gure neska-mutil ikaslak,* uda aldiko opofak dauken ur gozua orpotik iruntziteu, pozafen jabilkuz, baia aren gurasuak, gerokuari begira, buruari atzka ikusten doguz. Badarabile bai, ezkuartian, arduraz artzeko arazua. Lekaide ta lekaimiari irakastia galarazo deutzela ta, egunero izpafingijetan irakurten dogunetik, uda azkenian jouakuzan enadak lez, batian batzuk eta bestian bestien batzuk, lekaidiak et lekaimiak bajoiakuz. Batzun batzuk azitako gofotuak poztuko ditu, baia beste batzuk zuen utzunak zelan bete ezinda, itzal dabiltzaz.

**Ez da orixe, zeregin ereza dirudijenez.**

Aldizkingi izalgafi baten irakufi dogunetik, irakatsi txafak artzeko afizkuan dagozan gastiak aldeztutiafen agindu zofotzak emonak dira Gotzain jaunak. Ona emen guk irakufi doguna.

**Ikastola arazotzaz.**

Katolikuentzat arauak: 1.<sup>a</sup> Gurasuak, seme alabak katoliko ikastolera bakafik bialdu bialfian dagoz. 2.<sup>a</sup> Agirijan katolikuen aurka (acatolicas) edo batera ez bestera egiten ez dabenera (neutras), semiak bialdulia ezta ta zofotz galerazota dagon ezkeru, akatz gustiak aufetik arteztu eta biarko dirian neufijak artun ondoren, Gotzain jaunak bakotxian erabagiko dau, ofelako ikastolera juan leikenik edo ez. 3.<sup>a</sup> Olako ikastolera juateko baimena balitz, gurasuak a) seme alabak esku artian darabiltzezan ikastola idaztijak, eta ikastolan emoten jakezan irakatsijak zearo arteztu bialfian dagoz b) ikastolan irakasten ez dotzen kistar ikasbidia etzian emon bialfian dagoz eta iñoiz baño ardura andijaguagaz, kistar eginbafak betetera zaletuta makurtuten aleginduko dira c) sinismena eta oitura onak galdu eragingo deutzetzen lagunagandik aldendu ta ufunduko dabez.

**Zintzo jokaturteotan.**

ba, gurasuak, gefijan prakak estutu, eta umiak noren eskuetan izten dozuezan jakin biarko dozuez. Eta onik ez dakafen txafik ez dalez, ona emen gure eritxi labufian, Jaungoikuak, gurasuak uzkuertzen alde lanian ipinteko atara daben bidie. Lo gengozan, eta benetako kistar gurasua danak akulukada oferi erantzungo dotzo.

**Arantzalien irabazijak...**

ufijak. Batzuk bestiak baño gitxiago baia lñok bez guk gura genduan beste. Dirudijenez «Nikola Deuna» izan ei da txapelidun. Neguan be etzan txarto ibili. «Libe», isontzjak ondiño ez ei dau irabazirik lanatu, baia zakel lik beruena euren ei da. Tire ba; baia, ixilik, adiskidiak, bestela diruen uzañera emen dozuez Bilbaoko «pistolera». Uda-buztenari nafua kendu bialfian zagoze, ta emendik Ufilara egaluziak emongo aldau. Alan balitz!

**Batzokijan, orantsu antzertu**

zan antzerkija, ez eijaken askori atsegiñ izan. Antzestu ebenak motel ibili zirialako edo? Ez. Antzerkija bera gatz bakua zalako? Ezta ofegaitik be. Erderazkua izan zalako baño. Beti euzkeria darabilgun efi onetan, euzkeria zaindu, zabaldu eta garbitu bialfian dagozanak ezebela olakorik egin biar. Batzokijetan erderaz bada biltzaz, iñoiz ezer erderaz dabiltezan elixkizunen aurka zetan idazten daben eta, abar da abar.

**Geu be oretan gara.**

Egiz, irakatsi deuskuen gustia, erderaz irakatsi deuskuelako, erderara ezez joten dogu, baia emen beti darabilgu euzkeria. Erderiori itxi daigun

ba, «zeñoritantzako», ta... (ene apur bat egaitik aztu giñian) enparantzako txori garatzenzako. Arenak bai coupletak, erderaz, Diñoguna, euzkeriak ezin dabelako dala. Iñoiz olakorik ezingo baleu, oba. Loitu be ez da loituko.

**Dana dala.**

Euzkeriari dotzagun maitasuna egitadakaz agertu daigun. Geuk maite ez badogu, nok maitatuko deusku? Alemanak? Euzkeldun askok baño geiago bai. Eta orduan zetako dozue euzkeldun abixena?

LILI-EREA

**Erigoiti.**

1634

Mayordomu Jorge de Afien zan, Alkate nor zan ezta kigu, baya kontuek San Juan de Malafiak izenpetuten ditu eta len be iñoz firmau ditu alkateak kontuek. Garie ogeta iru efealean saldu zan, artoa amairuen. Efegearen aginduz, ogeta sei duket emon bear izan eutsezan elexeari sor eutsezan eun duketak. Don Martin de Afiaga abadeak be, patroyen amnistradorea zalako, emon beafa eukan onen ondasunetatik 844 efeal. Urte onetan kanpantofe bafie ta beste obra batzuk be egin ziran elexan eta gastau ziran 3.019 efeal. Oneixek ibili zirian bearen: kantararako bideginen: Juan de Madalangoiti; areatan: au ta Migel de Bolinaga, Kristobal de Monasterio, Agustin de Monasterio ta Afiaga anyek. Uretan be erabili zituezan iru neskatile ta Kristobalek be ekafi eban upe bat ur efeal bien. Amar mile duketeko kontribuziñoa ordainduteko be, ogeta bi efeal emon zituezan.

**Urte uřena.**

Batzokia zabaldu zaneko urte uřena zala ta, yai polif bat egin euden lengo domekan Eleiz-Gastediko gasteak euren batzokien, itzaldi ta konbit apur bat eginegaz. Zuek amok sartu egizuez Eleiz-Gastedien ofelik amalau urtetik gorako mutil gustiok kristiñau ta efitar onak izaten ikas dagien.

**Pořak igaroten.**

Amar eguneko opofak igaroten etofi da elezaldeko Otazua'tar Peli euzko langilea.

**Eriotza.**

Andra Mari egunean il zan Burubar'ko Seberi, Emakume Abertzale Batzako. (G. B.) Lagunduten deutzegu atsekabeen bere sendiari.

**Mañari.**

*Pozez etxeratu.* Igandian Aralar mendira juan ziranak, pozez etxeratu ziran. Ango gatz za edefak Belakortu'tar Juli abertzale onak, zertzeladirik askogaz edetuten dauskuz.

**Mikel Gongotzonak jabon gaxala**

*Juan-etofijak.* Bilbao'ra juan ziran, Bilbao'ta Efamone, Arteaga'tar Salome ta J. kinde, Bernaola'tar Pele ta Bizkafar Pele emakume zintzuak.

Elofio'tik etofi zan alditxu bat igaroten Oteřa'tar Masimiñe bere umetxuakaz.

**Ereño'tik, Ortuoste'tar Bitor mut**

gastetxua. Aspalditxuban emen aurkitzen dira, Gafido'tar Miren Karmele ta J. sebatu neskatomutikuak.

**Osatetxetik etxera.**

Bilbao'tik, San Sebastian osagiñaren osatetxetik, lengo larunbatian etzeratu zan Arteaga'tar Toma abertzale zintzua. Toma aberkide on osatetxe atan, ebakintza bat egite

**UMIEN LAGUNA**

---

Umientzako  
ta nausitxoentzako be

**eleiz libururik edereña  
ta merkiena**

**Lauerleko batetik asita  
bosterañokuak, zelako  
azalaz gura dan.**

---

**Jaungoikoaren legebo aginduka  
Ibargutxi'tar J. G.  
6 lauerleko**

rantzu antzeztu zan antzerti eder bat. Teman bazabiltzaze, Ugaldebea' ar Miren neskatilian itanduko deusegu, norentzako izan zirian gau atako txalorik beruenak.

**Norberen eliaganako** maitasunak, erbesteko eliaganako ofotorik ez diño. Ele, bakotzak beben berarizko eskubidiak baditu, euzkeriak, odolez, abendaz, eta abixenez euzkotar garienon eliak, beren eskubiderik zapaldu barik loratuko itzake, beren etxian, jauk izango itzane. Uri txarto dagonik ezin dogu bitu.

**Gutzako oster, txarto** baño txartuago dabiltzaz, euzkeldun abixenak euki afen, euzkerarik jakin ez, eta jakiteko alegiñak egiten ez dabenik eta dakijen afen ezetarako ez darabilenak. Gure lelua auxe da: Abixen elia jakin eta erabili biar dala. «Ekiñe'n lelua be, ez alda ba. «Euzkeldunari euzkeraz?»

**Bermeo'n, badabe,** pinguan be zeri negar... ¡Ontzi bik, izan daben alkar-jote baten, etxakez ba ito amaika gizon aundi! Ez biar gustiak minduten gaituez, euzkeldunenak batez be, baia afantzalienak geyen. Itxuak, itxo, eta aren alargun eta umezurtzak... Aspaldijon, onetako ta atarako ainbat emon daben euzkotafen esku zabalak lagunduko deutzue. Gure anai itxuen alde otoiitz bero bana irakurliak. (G. B.)

**Izparkari begikua' donokira** «Ekin»en «Praisuren-lobia» izen ordiagaz Ea'tik idazten eban Sagasti'tar Polentze il jakula (G. B.) Tamalez jakin genduan. Beren izpar zaliak genduzan; idazle azkafa, eta efi-oraitia zan. Ea'ko gure auzo-efi maitiari, eta ilen etzeko ta sendiari gure samiiñ-agur mindua

Atzedena, emon-Jauna ilari; Dorokijan gentza deuna onari.

LILI-EREKA

**Mañari.**

**Urkiola'n.** Igandian, Urkiola-ganian, bertako deunetxiaren onespina zala-ta, iñun diran elizkixun edefak ospatu ziran; guk iñoz ikusi ez-doguzan lakuak.

Jaupa nagosijan, gure Gotzain agurgafajak, berbaldi edefa egin eban; lenengo zatija, geure elez, euzkeraz, ta bigafena erderaz. Lagun asko batu zan. ¡Aintza Andoni deun andijaril!

**Juan etofijak.** Bilbao'ra juañ ziran Gofotxategi'tar Martin eta emaztia.

Galdakano'ra, emen egun batzuk igarota, Elberdin'dar Miren neskatilatxua.

Barakaldo'tik etofi zan, Zabala'tar Kaulde anderea.

Getxo'tik, Ertziñla'tar Eustoke anderea.

Bilapranka Nabafa'kotik, etofita, egun-ontan emen aurkitzen da, Simeon Aña Karmeldar lekaidia.

Aste ontan Urkiola'n aurkitzen da, Markaida'tar Imanol jaupari gastia.

**Osatebakuntza eginda.**

Gofotxategi'tar Kepa gure auzo-mutiña, Bilbao'n, Gimon jaunaren osateixian, osatebakintza bat eginda aurkitzen da; ta entzun dogunez, bere gexoan ondo dua.

Eure gexoan oberantza egitiñaz, poztuten gozak Peru ta ondo osatuta arin etxeratzia be, benetan opa dua-gu.

**Agurtu.** Egunontan Urkiola-ganian agurtu doguz, Mendiguren'dar Polentze. Garayo'tar Terese ta Arana'tar Bingen, Bilbao'ko emakume zintzuak

Baña, antxe bertan gaur agurtu dogu, Lizundia'tar Efapele Abadiano'ko E. A. B.'ren landakari agurgafija be.

**Intxaúra.**

Aurten ugari. Intxaufonduak, ofiñan aña alegaz ikusgafi dagoz. Afikada bategaz txapel-bete eratziz legioe. Gure mutikuentzat, alagalako zeregiña...

Aurtengo Gabonetan, intxaursaltzaz beteko garialakuan gagoz. «Asko, askorentzat» esaten dabe ta. Geure txikitako gauzak gomutautu, ona emen ume-bertzua,

«Aurten intxaur asko Gabonetan saltza, Peruk soñua jo ta gustijok dantza»

Txikitako gauzak, nekez aztuten dira ¿ezta? «Ikasijak jafatu»

MAÑARIKO

**Dima.**

**EKIN.**

Ez dakigu zer jaso dan igaro diran aste bietan: EKIN be ez da eldu astelenerarte ta... EKIN'era bialduko bafiak be ez daukuez argitaldu. ¿Zer gertau ete da ba?

**Gexorik.**

Lengo egun baten gexotu zan Humbeko Markos ta Bilbo'ra eroan dabe ebakuntza bat egitera. Arin osatu.

**Eriotza.**

Goirien il da larogeita bi urtedun Juana Mardaraz, Fakundo Artabe larogeita amaika urtedunaren emastea. Goyan bego.

**Jayotzak.**

Iru ume ugutzau dira egunokaz Dima'ko Eliz nagosian. Bat Jose ize-nagaz Ziafusta'ko Jose ta Anastasian semea: bestea Garbiñe euzkel-izenagaz Arzubiko kamiñeru Artetxena ta irugafena, Juana Francisca ize-nagaz, Ziafusta'ko Francisco ta Luisa'n. alabea. Zorionak.

**Naskaldia.**

Emen egun batzuk igaro ostean Mundaka'ra joan da Basozabal'tar Jesus bere sendiagaz.

Lekeitio'tik izan da egun batzuetan Jose M.<sup>a</sup> Mardaraz abade jauna.

**Oba'ko jayak.**

Aurten jai andiak ei dagoz Oba'n be: ointxegandik dabiltz jaiok gertetan: gente asko joango dala uste dogu.

**Aufera EKIN'ean.**

Lengo astean idatzi daukuz Arteun'go bafiak EKIN'ean idazle argi batek: jafaitu astero Arteun'go bafokaz ain polito idazten dozun ezkerokoz irakufiko doguz.

X. X.

**Lekeitio.**

**Íletas.**

Bafiro zoritxakafak jo gaitu itxasertzeko euzkeldunak, Bermeo uri begikoak artu dabela naigaberik andiena; lekeitiafak be baña efitar maite bat galdu dogu, Tofaldea'tar Josu, beste euzkeldun anayakin batera. Jaungoikuaren bakean begoz euren arimak, eta guk aldogunez eurai otayakaz eta emen utzi dabezanai eskuerakutziagaz lagundu dayoegun.

**Jayak.**

Ilaren bian Andolin Deuna dala-ta, gure Zaindariaren jayak izango doguz iralaren lenengo bost egunetan. Itzaldia Galdots Abak egingo dau, eta josulagun jakintsu onek oi-dabenez, gogotsu ta egokiro jardungo dau Jaupa Nagositan uri onen Jagoleari buruz.

**Udaguen.**

Egunetan kurlo-aldrak Gaztela aldera doz, udaren azkenak adirazoaz emengo ugarteaz atsedendia artu dabe kurlo edo garza onetakoe-tarik bat edo bestek.

**GORUNTZ - GAYAK**

Eunak, bale-bizafak, zumitz ugaf-gaitzak  
**Zubiri'tar Bingen**  
Artekañe, 50 BILBAO

**Eleiz - Jantzi ta urregintza**  
**A. Rui-Wamba**

Eleizak jasako biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke  
Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238  
**BILBAO**

**Oñetako ta puntotzko gauzak**  
Ugari, onak eta merke  
Euzkeraz itz egiten da

**BENGOA'TAR MATIAS**  
Artekañe, 1 eta 7 BILBAO

**JANTZIAK**  
gizonentzako Teadoron-ian egingotzue iñun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.

**TOVALINA Y C.<sup>a</sup> L. D.**  
SOMERA TT BILBAO  
Lenengo oñian sartukeria dendatik.

**Eunak eta soñeko egifak**  
**Zeara'tar Erupin**  
Tenderia 15 BILBAO

**BGILBORTAR JON G. TA SEMIAK**  
AUTONOMIA-24'gn. — ABANDO'n igali edo fruta ta basoko zugatzak. Landa, ta ortu -azijak. Zimaufak; kokuak ilteko gayak, eta abar. Landara-gatzak kentzeko irakaskixunak. Ortu ta barat-eredubak.

**Marin eta Goikolea**  
(Ien Apellaniz y C.<sup>a</sup>)

Santugintza; Alfara, Pulpito, Konfesonario ta elelzetarako beste zul-lanak  
Castilla, 31 VICTORIA

**Eguñola Joslia**  
LEKEITIO'n eta BERMEO'n Urzelal-kalean 16'gn.  
Bilbo'ra deitu ezkerok, noz nai yoango da. Hotel Arana (Bidebarieta) edo «La Guipuzcoana» (Ledesma 6)  
Oyalik onenak. Berebiziko artaziak

**Tximistak.**

Igasi dan astean oñeztafi bi jausi ziran gure auzoan, bata Mendexa'n, goizean, eta bestea Ispaster'en afa-tsaldean. Mendexa'koak eliz-tofean egoan trikimakea ta efiko ufutzikin edo teleponoa bifinduta utzi ebazan, abadeari ta eleiz otseñari be ikustalditxua euren etxietan egiñik. Ispaster'koak be teleponoari astinaldi edefa ta Legortza basetxeokoi ikara ez-txikia emonda iges egin eban. Bai ei-dira igitaya biraka, semeari oña etetan, eta onako afigafiak ikusi ebezenak... amesetan. Batzuk danean bafuko izan nai.

ERI

**Ondañoa.**

**Koldobikatarak.**  
Igazi zan astelanian euki geban Koldobikatarafok ileroko batzafa Bide Onera'ko aretuan. Arturiko erabakietatik gafantzitsubena, dantza-lotuan egiten daben bazkidia, lagun taldetik kanpora jaurtitzia izan zan. Abegi ona egiten dautsagu erabaki oneri, koldobikatarafa ekandu onen

aldezle benetakuak izan biar dau-lako.

«Añastreruak» geitzen. Emengo kai edo portuban «afas-trero» bikote bat geitu da. Eurokin bosgafen bikotea egiten da (baña aldi onetan batzuk ega lutzetan diardube) era ofetan afantzazten dabenak.

**Eresbatzaren ibilketak.**  
Gustiz eskatuba dago emengo eresbatza aurtengo udan.

Markina, Motriko eta Elgoibar izan dira berau eruandakuak eta orain bafiz Lekeitio'kuak dei egiten dautsoe ilaren 2'an, 4'an eta 5'an ara juañ dadixan. Ondo ibili eta Ondañoa'ren ixena goi-goyan imiñi.

**Pelota jokua.**  
Uda lakeratuta partidu eder bi jokatuz ziran juañ dan larunbatez onela geraturik:

Lenengo jokua Kifu Urzelai eta Irueta Artazo 22-14.

Bigafen jokua Elortza Aulestiarte eta Urzelai II Ubila III 22 21.

**Uri jayak.**  
Oindiño igazitako jayak aitzu barrik daukaguzanafen bestiak ganiñan doguz.

Ama Neskutza'ren jayokunde jai-egunak dirala ta egiñiko egitaraba ezin edefagua da, baña luzegi izango litzakelako ez guaz emen jartze-ra.

Laburki bada be imiñi barik ezin geinke geratu eta esan biar dogu egongo dirala jaupa aintzatsua, erestaldi bikañak, txifingutz, dantzaldi eta arineketa sarijak, Deba eta Motriko'ko eresbatzak, pelota joko edefak, Bilbao'ko kirol-bazkuna Zirkua zaledun taldia eta abar.

ITURI-ONDO

**Ea.**

**Sagasti'tar Polentze'ri.**  
Iges daukuz  
Geure ondolik  
Polentze mafe-maña  
Atsekabez ta samintasunez  
Itxirik geure bijotza;  
Asperu barik  
Dagoz negafez  
Geure efi ta Abefija  
Ofa norarte eldu izan diran  
Gure malku ta sotiñak.

Espilu argi garbi-garbija  
Zu izan zara ludi onetan,  
Eta or goiko ortze edefian  
Zure argija ¿zer ete da?  
Gotzon eder bat zara Polentze  
Jaungoikuaren aufian:  
Zar eta gastek jafai dayogun  
Zeure oiñ-ertzari ludijan.

Amaibagako zorionian  
Sartu da zeure gogua;  
Gutzaz be, afen, gomuta zaitze  
Jaungoikuaren aufian,  
Ainbat lastefen ausi daitezan  
Abefijaren estuntzak  
Bakez ta pozik bizi gaitzezan  
Ama Euzkadi'n altzuan.

MIRENTXU

**Erigoiti.**

1635  
Mayordomu: Domingo de Sagasti ta Zabalorueta zan; firmetan dituez kontuek: Juan de Atxika ta Juan de Berayazafak; eta bear bada oneik izan zirian Justiziekoak. Garie ogei erlean saldu zan eta artoa amafean. Marina de Agife'k elezarako anega bi gari emon zituen. Don Martin abadeak ugezaba edo patroyari motea toketan yakon erdietatik, (onen administradorea zalako) iru mile ta bost-teen efeal emon zituen; beste erdiek Don Franzisko de Gernika'ri, emon bear eutsezon, Efegeak alan ebatsi ebalako. Juan de Uriguen'ek be, demanda asi zan orduen eleizeak eu-

kezan amafenak deposituen 'eukezala-lako eun efeal emon zituen, Efegeak alan agindu ebalako. Kanpantofe bafie egiten dabiz eta 1.477 pta. gastau dituez. Foru'ko Fernando de Elofiaga'netik zortzireun kintel kare ekafi zitezuan, kintela bost kuartilu pagaute. Ekartea, kintela, erla. Zugasti'ko kantaran atera zitezuan are ta afie, ta baite bosteun kana afi landu, kanea efeal bat pagaute. Ekafi, Kristobal'ek efeal-erdien burdie. Franzisko de Oñala ta Maria Martinez de Atxika'ri befogeta iru efeal emon yakiezan kantaran egin yakiezan kalteak ordaindnteko.

**Yayak.**  
San Bartolomeak diriala-ta ezto-guz lau egun makalak igaro: ta bos-gafena astelena!

**Beara galazo.**  
Bizar-kentzaleai galazo ein ei-deutzie igandeetan bizafa kentzen. Ondo baño obeto dago ori, igandeak ez-rialako bear egiteko, eta ganera, oin beafa eskas dabilen lez, al danik gitxien egin bear dogu, bape barik geratu ezkaitezan.

**Ereño'ko «Jel-orde»ri.**  
Lengo asteko idazkian ziñozun, efiñen yazoten dirian gauza txar guztien efue botaten deusuela ta abadeen bat ete zaraan nei dot. (1) Ba, nik ezaututen dodan beste efi baten, yazoten dirian ez-bear guztien efue abadeai botaten deusie. ¡¡Bai, abadeak onak bageunkez, gu geu onak gara...!

S.

(1) Ez da ba, abadea. Sakristautzara eltzen ez diranak be ida le efimik daukoguz guk, ta or Ereño'n batez be. Esan neban len be amairu idazle Ereño'ko efi txikitxuan; abadia ren biar izanik ez dago ba ango izparak batuteko. Artez.

**Natxitua.**

**Idazle bat gutxiago.**  
Azken ikurtonak eta Doipuruaren onespengan artuta Jaungoikuak beragana eruan dauku il onen ogetabatian EKIN asteroko onetan Ea'tik «Praisuren lobia» ixen-ordiagaz idazten izan daben emakume argija. Biotz-biotzez maite izan dogu emakume ori; atsekabian lagunduten dautsagu bere senide gustijari eta irakurle gustijari bere arimaren aldez otoi bana eskatuten dautset: otoi bat eta gero arte. Baita egun ofetantze gaxo nekatsu baten ondoren il da Alzola'tar Karmen geure auzoko andra zafa. Atsekabian lagunduten dautsegu bere seme-alaba eta snndiko gustijari. G. B.

**Eskontza.**  
Dagonila'ren ogeta sortzijan ez-kondu jaku geure adizkide izan dan Odriozola'tar Joseba Mirena (Lengo abere osagilia) Zalo'tar Gergore geure uriko emakume dotoriagaz. Zorionak.

KURUTZE-GANE

**Fruniz.**

**Eup!**  
Emen nator neure txandia betetan. Ia, zuek be, zur; utsik barik Artezka-ri jaunagindua bete, zur, ia «Lafa-suge», bizkortu, Ba-zan ordue be ta.

**Bermeo'ko «Neu-nai»ri.**  
Adizkide maitia. Uts andia egin neban lengo idazkian zeure ixen-ordiagaz; baña uste dot azketsiko dostazula. Jakitun egon naz zelan or, lantegi ofetan, lan egiten dozun. Bai ba, ez da mirarituteko gauzea be ta. Norberan sendia janarituteko lan egin biar, eta alanda bere lana dagoanian pozik. Ia, idatzi safi-asko, izpafak jakiteko gurari andia daukat-eta. Agur, eta ondo ibili Bermeo aldetik.

**Jazorikoa.**  
Antxiñe emetik asaubako efitxu baten kanpantofeko kanpai bi falta ei-ziran. Gazteiz'era joen biar, eta erdera dakianik Alkate jauna bakafik